

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Mugetaren merindadeak

PLAZER DIRA loreak sortan, buketan edo, bizkaierak izurtutako Goierrin esaten duten eran, erramilotan. Atsegin zaizkio emaileari eta hartzaileari; bere burua-arentzat egiten dituenarentzat, bi halako gozamina... Derrigorak zapuzten du laketa, eta gogokoa gogai-karri, baita goragalegarri ere, bihurtzen. Buketa iza-nagatik ere... Nafarroa Behereko merindadekoek, ustezko maitasunaren adierazle, maiatzaren lehenean emazteei oparituko dietena, euro ziztrin batzuen truke eskuratutako buketak izango dira. Ez nolanhiko buketak, sorta mugeta, *Comvalaria majalis*. Era guz-tietara biziko da egun horretakoa, derrigor, maitasu-nez, amodioz, onginahiz, musu-truk...

Musu-truk arabarrek dute eskura. Bertan dugu ugarien mugeta, harizti eta pagadietako erreka ondoetan. Gipuzkoako mendi garaienetan eta mugante dituzten Araba eta Nafarroako goietan, 600 eta 1.500 metro arteko harkaitz karetsuen gainetako belaze ospeletan bizi da. Udaberriaren ikur honek ura eta karea maite ditu.

Mugeta, mugetatzea eta larlijua izenak topatu dizkiot geurean. Lehen pareta Pirinioen iparralde-ra, frantsesezkoaren eraginez, inondik ere. Hiru-garrena hegoaldera. Lakoizketak ere jasoa du azken hau 1.888ko hiztegi paregabean. "Lirijua" liriotik eta "lar"-ek arantza esanez, basoetakoa adierazten omen du. Lar horrek ez ote du urrutiko-a esan nahi? Etxeetatik urrutikoa, larlur hitza-ren gisara... Bere etimologiari eusteko Bibliara jotzen du Narbarteke erretore izan zenak, Salomonena omen *Eresien eresia*-ra. Bertan, *Sicut lilium inter spinas sic amica mea inter filias*, senar zoragariak emaztea arantza artean hazten den liriorekin parekatzen duela dio.

Nafarroako iparreneko merindadeko Baigorri-ko kantonamenduko Larla mendian ba ote da mugetarik? Eta ekialdeko mugetako Zangotzako merindadeko mendi eta erreketan? Untzitiko Mugetaxarra eta Longidako Mugeta, larlirijo ala muga ote?



Lore desdetxa

Hona sagarrondoaren loraldia, *Malus x domestica*. Pipitta-bistan gorri, eta lorea munduratu ahala gero eta zuriago. Gero etorriko dira lore berdeak, hostajearen tiradizoari ameto emanez ortzadarra itxiko dutenak. Hostoaren emanean ikusezin egiten zaizkigu haritza, pagoa eta zuhaitz gehienek loraldia. Gaztainondoak, uda usainean, urteroko eskandaluzko lore gandarra zabaltzen duen arte.